



Berdintasuna Igualdad

HIRIKO PUNTU KRITIKOEN MAPA INTERAKTIBOA

UN MAPA INTERACTIVO DE PUNTOS CRÍTICOS DE LA CIUDAD

Donostiako Udaleko webguneak hiriko 42 puntu kritiko nabarmentzen diren mapa baterako sarbidea eskaintzen du. Puntu horietan arazoak izan daitezke segurtasunez ibiltzeko, bai irisgarritasun-faltagatik, bai isolamenduagatik edo ikusgaitasunagatik.

Mapa egiteko, Udalak 2013an egindako Donostiako Emakumeen eta Gizonen egoerari buruzko Diagnostikoa hartu zen abiapuntutzat, non agertzen baitzen hirian seguru sentitzen ez diren emakumeen kopuruak (% 62) bikoiztu egiten duela gizonen kopurua (% 32), eta, gainera, maiztasunari dagokionez, gizonak baino hiru bider gehiagotan gertatzen direla segurtasunik gabeko egoeretan; beren auzoan gehienbat (% 35), baina baita beste batzuetan ere; pasabideetan (% 39), parkingetan (% 17), autobus-geltokietan (12 %), eta beren etxean bertan (% 11). Emakume asko segurtasunik gabe sentitzen dira bakarrik daudenean (% 47), gauez ateratzeagatik (% 44), argiztapen-faltagatik (% 35), emakumeak izateagatik (% 27), adinagatik (% 10)... eta gogoan izan behar da gainera, lanaren eta zaintzaren sexu-banaketaren ondorioz, joan-etorrien forma eta maiztasuna, esate baterako, desberdinak izaten direla.

Mapa sortzeko, herritar askok parte hartu dute, eta Udaleko hainbat sail aritu dira lanean gainera: Hirigintza, Gizarte Ongizatea, Hiri Azpiegiturak, Proiektuak eta Obrak, Udaltzaingoa, Mugikortasuna eta Berdintasuna, "hiri debekatuaren mapa" oinarritzat hartuta, zeina Plazandreok taldeak eta Emakumeak eta Hiria Foroak egin baitzuten 1996an.

Mapa interaktiboa da, eta markaturiko puntu bakoitzean klikatzeko aukera ematen du, hartara ikusi ahal izateko zer alderdi den segurtasunik gabea eta zergatik, baita kasu bakoitzean bideratu diren ekimenen berri izateko ere. Era berean, puntu kritiko berriak eranstea proposa daiteke mapan.

Esku hartu beharreko eremuak zein diren jakiteko, espazio publikoa bakarrik aztertu da, eta arrikutsutzat jo daitezkeen lekuak analizatu dira, non zaila baita pertsona bat ikustea edo aditzea, edo pertsona bati laguntzea, jazarpena edo eraso gertatuz gero.

La web del Ayuntamiento de San Sebastián facilita el acceso a un mapa donde se identifican 42 puntos críticos en diferentes zonas de la ciudad que contienen dificultades para caminar por ellas con seguridad, tanto por falta de accesibilidad, como por aislamiento o visibilidad.

Para realizar el mapeo se partió de un Diagnóstico de situación de Mujeres y Hombres en Donostia elaborado por el Ayuntamiento en 2013, donde se identificaba que hay el doble de mujeres (62 %) que de hombres (32 %) que se sienten inseguras en la ciudad, y lo hacen con una frecuencia tres veces mayor que los hombres; sobre todo en su barrio (35%), pero también en otros; en pasadizos (39 %), parkings (17 %), paradas de autobús (12 %), y en su propio hogar (11 %). Muchas mujeres se sienten inseguras por ir solas (47 %), por salir de noche (44 %), por la falta de iluminación (35 %), por ser mujeres (27 %), por su edad (10 %)... debiéndose de tener en cuenta además que la división sexual del trabajo y de los cuidados hace que la forma y frecuencia de los desplazamientos, por ejemplo, sean diferentes.

Para crear el mapa ha habido una fuerte participación por parte de la ciudadanía, además del trabajo de varios departamentos del Ayuntamiento: Urbanismo, Bienestar Social, Participación, Infraestructuras Urbanas, Proyectos y Obras, Guardia Municipal, Movilidad e Igualdad, partiendo ya del "mapa de la ciudad prohibida" elaborado por Plazandreok y el Foro Mujeres y Ciudad en 1996.

El mapa es interactivo, dando la opción de clicar en cada punto marcado para ver de qué zona se trata y el motivo por el que no es segura, así como las actuaciones que en cada caso se han ido llevando a cabo. También permite proponer la inclusión de nuevos puntos críticos.

Para identificar las zonas a intervenir se ha analizado exclusivamente el espacio público, analizando lugares que pueden ser considerados peligrosos, donde es difícil que una persona sea vistas, escuchada o socorrida en casos de acoso o agresión.

Ikusi ahal izan den bezala, era askotako motiboak daude emakumeek segurtasuna galtzeko. Emakume gehienek gaeuz edo bakarrik ateratzen direnean sumatzen dute segurtasun-falta, baita toki ilunetatik doazenean ere, edo beren adinagatik, edota, besterik gabe, emakumeak izateagatik. Pertzepzio horietan oinarrituta identifikatu ahal izan dira puntu kritikoak, gogoan izanik halaber beste talde zaugarri batzuk, nola diren adineko pertsonak edo mendekoak.

Como se ha podido constatar, los motivos por los que las mujeres se sienten menos seguras son diversos. La mayoría lo notan saliendo por la noche o solas, yendo por lugares oscuros, por su edad o simplemente por el hecho de ser mujer. Con estas percepciones se han podido identificar los puntos críticos, teniendo en cuenta también a otros grupos vulnerables como personas mayores o dependientes.

Informazio gehiago:

Puntu kritikoen mapa

<https://www.donostia.eus/app/berdintasuna/PuntuKritiko.nsf/fwLugares?ReadForm&idioma=eus&id=A374066376363>

Más información:

Mapa de de puntos críticos

<https://www.donostia.eus/app/berdintasuna/PuntuKritiko.nsf/fwLugares?ReadForm&idioma=es&id=A374066376363>